WHAT THE HACK?!

Friesland College school D'Drive, Learning Hub Friesland eta Herbeheren Iparraldeko Zibersegurtasunerako Fundazioarekin batera zibersegurtasunaren eta pirateria etikoaren esparruan kolaborazio proiektuak sortzeko interesatuta dago, LH-ko ikasleak aro digitalerako prestatzeko helburuarekin.

Asmo hau gauzatzera heltzeko, Friesland College ikastetxeak finantzaketa eskatu zuen Erasmus+ KA2, Elkarte Estrategikoak programaren esparruan. Elkarte estrategikoak proiektu transnazionalak dira, praktika berritzaileak garatu eta partekatzera eta lankidetza, berdinen arteko ikaskuntza hala nola hezkuntza, prestakuntza eta gazteria esparruetan esperientzien trukea sustatzera bideratuta daudenak.

Segurtasun zibernetikoa: EBko lehentasun handiena

PYME-tako ziberdelinkuentzia hedatuz doan kezka bat da. PYME-ek TIC-eta Internet sarearekiko duten mendekotasunak ziberdelinkuentziari dagokionez kalteberak bihurtu ditu. kalteberatasun hau informazioaren segurtasuna PYME guztietarako gai kritiko bat bihurtzen ari da. Europar Batasunerako zein mundu mailan, mehatxu eta eraso zibernetikoak gainditzea gero eta erronka garrantzitsuago bat da.

Segurtasun zibernetikoa Europan lehentasuna bihurtzeko beharrari dagokionez, hedatuz doan erronka bati aurre egin beharrean aurkitzen gara, zibersegurtasun arloko profesionalen gabezia. Azken txostenen arabera, Europak 2022rako zibersegurtasun arloan 350.000 profesionalen gabeziari aurre egin beharko dio.

Zibersegurtasun arloan talentua hedatzea ezohiko jarduera bat da. Komunitate autodidakta eta errebelde indartsu batez ari gara (hackerrak). Komunitate honek sarritan ez du ohiko hezitzaileen arreta jaso izaten, hain zuzen haiek nahi izaten ez dutelako.

Gure ikuspena: Mundu zibernetiko batetik, gazteentzako aukera eta segurtasun leku bat egin

WHAT THE HACK?! Proiektuaren helburuak ondorengoak dira:

• Gazteen TIC arloko konpetentziak eta konpetentzia giltzen maila hobetzea eta, ondorioz, lan-merkatuan txertatzeko horien garrantzia nabarmentzea (zibersegurtasuna eta pirateria etikoari buruzko hezkuntza eduki berriak garatuz).

• Gazteentzako TIC inklusiboen ikaskuntza esparruak garatzea LH-ren barruan eta kanpoan (Hack laborategien sorrera edo garapena direla medio, adibidez. TIC babestuen ikaskuntza eremuak).

• NEETS izendatuak ikaskuntza ez formalaren barne hartzea eta emaitza modura, horiek hezkuntzarantz edo enplegurantz bideratzea.

• PYME-ak eta pertsonak bere online bizitza bermatzeko ahalduntzea, zibersegurtasun arloan prestakuntza eta sentsibilizazioa bultzatuz.

• Sinergiak, lankidetza eta transferentzia sustatzea hezkuntza, industria eta (erdi-) gobernuaren esparruan TIC-en sektoreko talde ezberdinen artean.

• Bermatzea LH (LH-ko irakasleak barne) TIC-en sektorean aurrerapen teknologikoen abangoardian egotea, prestakuntza kurrikuluetan eta LH-ko kualifikaziotan aurrerapen hauen eguneratze azkarra ahalbidetuz (LH-ko hezkuntza hornitzaileek elkartetan modu aktiboan parte hartu dezaten baimenduz).

• TIC-en arloko profesionalentzako etengabeko ikaskuntza sustatzea, bere konpetentzia eta gaitasun pedagogikoak garatuz eta haiek Hack-lab'entrenatzaile/coach-ak bihurtzeko prestatuz'.

• Berdinen artean nazioarteko ikaskuntzaren aukerak eta LH-ko gazteriarentzat ikaskuntzaren mugikortasuna hedatu, horrela nazioarteko ikasleen eta prestakuntza asteen artean proiektu bateratuak erraztuz.

• Kalitatean, berrikuntzaren bikaintasunean eta LH-ko erakundeen

Helburu-taldea

WHAT THE HACK! proiektua nagusiki gazteengana zuzenduta dago, LH-barruan zein kanpoan (NI-NIs). Proiektua gazte, jokalari, ikasketak utzitako gazte, autista eta egungo ikaskuntzan erronkaren bat gainditu gabeko gazteentzat zabalik dago. NI-NI-ak eta TIC-arloarekin lotutako sektore ezberdinetako LH-ko ikasleak izango dira proiektuaren jomuga, horrela jatorri ezberdinetako ikasleek elkarrengandik ikastea bultzatuz. Gainera, proiektua LH-ko TIC-en hezitzaile, langile eta profesionalengana zuzenduta dago, TIC arloko profesionalak hezkuntza esparruan aktiboki inplikatzen dituelako. Proiektuan zehar, 180 gazte, 24 irakasle eta TIC-en arloan interesatutako 80 pertsona proiektuaren jardueretan partaide aktiboak izango dira.

Emaitzak

WHAT THE HACK?! Proiektuaren jarduerak 2019ko irailean hasiko dira, Leeuwardenen eta 2022ko abuztura arte luzatuko dira. Proiektua amaitzean, ondorengo Hezkuntza Baliabide Irekiak jarriko dira eskuragarri.

- *WHAT THE HACK?!* Heziketa programa mistoa LH-ko gazteentzat.
- *WHAT THE HACK?!* Hack Lab-en sorrera gida.
- *WHAT THE HACK?!* Hack-Lab hezitzaileentzat konbinatutako heziketa programa .
- *WHAT THE HACK?!* Online komunitatea. WHAT THE HACK?!

Halaber sustapen ospakizun ezberdinak eta 3 ikaskuntza jarduera antolatuko ditu gazteentzat. 2020ko apirilean Parnun (Estonia), 2020ko abenduan Leeuwardenen (Herbehereak) eta 2021eko irailean Donostian (Espainia).

WHAT THE HACK?! Halaber sustapen ospakizun ezberdinak eta 3 ikaskuntza jarduera antolatuko ditu gazteentzat. 2020ko apirilean Parnun (Estonia), 2020ko abenduan Leeuwardenen (Herbehereak) eta 2021eko irailean Donostian (Espainia).

Inpaktua eta epe luzerako onurak

Proiektuaren helburu nagusiena gazteen garrantzia nabarmentzea da, lan-merkatuan txertatzeko. Ekintza honek ekonomia lokala eta eskualdekoa eragiten ditu, TIC-en enpresek zibersegurtasunean prestatutako profesionalak eskuratu ahal izango dituztelako, enpresen hazkundea bultzatuz (Europan enplegu aukerak eta ongizate ekonomikoa bultzatuz). Etorkizuneko profesionalak merkatuko eskaria asetzeko behar bezala ekipatuta eta prestatuta egongo dira (horrela bere enplegagarritasuna eta merkatu globaleko bere lehia abantailak hedatuz eta bere ikuspegi sozio-ekonomikoak zabalduz). Enplegurik eta heziketarik gabeko gazteek hezkuntzaren mundura eta/edo enplegura itzuli nahiko dute eta epe luzerako euren enplegu eta sozio-ekonomia ikuspegiak zabalduko dituzte (aukeren berdintasuna pertsona guztientzat).

K i d e a k

Lau herrialde izango dira partaide WHAT THE HACK?! proiektuan. Herrialde hauek elkartzen dituena, mundu zibernetikoa LH-ren barruan zein kanpoan gazteentzat eremu segurua eta aukera bihurtzeko bere asmoa da. Herrialde guztietan, LH-ko ikastetxe bat partzuergoan partaide izango da TIC-ekin lotura duten interesatutako taldeekin batera. Proiektuko kideak dira:

P1, Friesland College - D'Drive – Herbehereak

P2, Learning Hub Friesland Foundation - Herbehereak

P3, Foundation for Cybersafety Northern Netherlands - Herbehereak

P4, GO! Technisch Atheneum Zavelenberg - Belgika

P5, Cebanc - Espainia

P6, Pärnumaa Vocational Education Centre - Estonia

P7, Information Technology Foundation for Education (HITSA) - Estonia